

ANAITASUNA

294. zenb.

1975.eko martxoaren 31koa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Euskal Komikia



Agur, irakurle!

Hona, komikiekin batean, komikiari buruzko ale berezi bat.

Ba dugu zer pozturik. Ale berezian berririk ba du, beharbada, irakurleak. ANAITASUNAREN ale bereziok, edo memento interesgarri batek eskaturik, edo problema garrantziko bat tratatzeko agertuko dira. Bietan, irakurlearen probetxurako, tratamendu sakonago bat hartuko du gaiak.

Ale berezi hauetan, orain komikia aztertzen dugun bezala, beste arazo eta gai batzuei erabiliko ditugu gerora. Hiruzpalau ari gara prestatzen presentean.

Komikiaren zenbaki hontan, mementoa eta gaia, biak dira bereziki garrantzizkoak. Uste dugunez, orain arte izan

ez duen halako kategoriako komikia eskaintzen diogu euskal kulturari. Une gogoangarri bat, beraz. Bestalde, komikiak duen kultur eginkizuna ezagulurik, euskal kulturari ezin hobea etorriko zaio honako hau.

Hain zuzen, komiki hauen berri emateko eta komikiaren kultur funtzioa adierazteko pentsatua izan da zenbaki hau. Idatziaren eta irudiaren kulturen arteko ezkontza hontan (hori da komikia), euskal kultura, komiki honekin, lotsarik gabe eta harro presentia daitekeela pentsatzen dugu.

Zure harrera onaren eta laguntzaren zain, ez adiorik.

Joan Mari TORREALDAY

ANAITASUNAREN Zuzendari